

"Ezagutu ditugun talde interesgarri askok autoeraikuntza eskubidetzat hartzen dute, eta aukera hori bermatzea nahi dute". Pez Estudiorekin solasean

Laburpena: Maé Durant eta Elisa de los Reyes arkitektoei eginiko elkarrizketa, Pez Estudio arkitektura ikerketa-taldearen buruak, Inteligencias Colectivas 2.0 proiektuaren inguruan, Hego Amerikako hirietan burutzen diren arautu gabeko eraikuntza sistemak eta Europako testuingurua alderatuz.


Gako-hitzak: Adimen Kolektiboak, Zoohaus, Agronautak, Auto-eraikuntza, Birziklaia, Hego Amerika

Abstract: A conversation with Maé Durant and Elisa de los Reyes, from the architectural group Pez Estudio, on their project Inteligencias Colectivas 2.0, discussing the informal construction techniques developed in South American cities, and confronting it with the European context

Key-words: Collective Intelligences, Zoohaus, Agronauts, Self-construction, Recycle, South America

Ibai Gandiaga
Arkitektoa eta
erredakzio kontseiluko
kidea

Jasotze-data: 2014-12-05/Onarpen-data: 2014-12-19



Wikitoki-ra heltzen naiz, Pez Studiok Bilbon duen lantoki partekatura, Maé Durant eta Elisa de los Reyes arkitektoekin hitz egiteko asmoz. Elkarrizketaren helburua *Inteligencias Colectivas 2.0* (hots, Adimen Kolektiboak 2.0) proiektuaren nondik norakoak jakitea da, hau da, Zoohaus plataforma kolektiboaren barnean eratzen den proiektua hobeto ezagutzea. Hain zuzen ere, Adimen Kolektiboak 2.0 proiektuarekin New Yorkeko MOMAn egin beharreko erakusketa batean hartu behar dute parte, *Uneven Growth* deritzona. Adimen Kolektiboak 2.0 proiektuak hiritarren ezagupen informala detektatzeko jaio zen, arkitektura informala eta ebazpen konstruktibo berezietan zuzenduta, katalogo moduko webgune batean eskegiz lortutako ondorioak¹.

Maé eta Elisa izenak erakunde edo talde askoren atzean ikusten ditugu: Zoohaus, Pez Estudio, Inteligencias Colectivas, Agronautak...Zuen antolatzeke era azaltzerik izango zenukete?

Elisa de los Reyes (ER): Maék eta biok osatzen dugu Pez Studioren alde trinkoa, eta Madril eta Bilboko hainbat kideekin lankidetzan dihardugu 2006an hasi ginen, ETSAMeko (Madrilgo Arkitektura Eskola) patioaren erreforma burutzeko lehiaketa irabazi ondoren. Zoohausi dagokionez, 2007tik aurrera pertsona eta kolektiboen sare horren parte gara. Sare hori Madrilgo arkitektura-ingurutik eratorritako arkitekto zein beste diziplina batzuetako pertsonak osatzen dute, espazio publikoan, hirien kudeaketan eta abarreko gaietan interes berdintsuekin. Batez ere, parte-hartze proiektuak burutzeko gogoz bildu

ginen. Oso pertsona aktiboak biltzen zituen topaketak antolatzen genituen, dinamismo izugarria zuen 50 lagunetik gorako posta-zerrenda baten bitartez.

Maé Durant (MD): Bai, Zoohaus proiektua "bota" zitekeen plataforma bat bezalakoa zen, eta hainbat pertsonak "jaso" egiten zuten proposamena, proiektua burutzeko taldea sortuz. Lan-modua zein helburuak ez ziren ohikoak; garai horretan ohikoena arkitektura-lehiaketetara aurkeztea izan arren, Zoohaus Matadero Sorkuntza Zentroko sormena sustatzeko deialdi batera aurkeztu ginen, Madrilen. Lehiaketa horren emaitza "liburutzar" bat izan zen, hain zuzen ere Zoohaus zeritzona, eta azken finean, gure lan egiteko era azaltzen zuena, eta horrekin batera beharrezkoak ziren tresnak. Modu berri batean lan egiteko bildu ginen pertsona talde baten lehenbiziko ekimena izan zen.

"Adimen kolektiboa" zer den azalduko duen definiziorik al duzue?

ER: Hainbat definizio ditugu, kontzeptua zabala da, baina esaldi baten atzetik baldin bazabiltza, hau izan daiteke: eraikuntzaren, hiriaren, antolaketaren esparruan ebazpen ez-estandarizatu zein informalak dira "adimenak", modu kolektiboan sortuak edo garatuak izan direnak, eta estandarizatu gabeko teknologia erabiltzen dutenak; gainera, teknika ez-tradizionaletatik eratorritako teknikak erabiliz, autoeraikuntza inguru informaletan sortzen direnak.

Eta Inteligencias Colectivas 2.0 proiektuari dagokionez, zertan datzan azalduko diguzue?

ER: *Inteligencias Colectivas 2.0* (IC 2.0) ETSAMeko irakasle

1 WWW.INTELENCIASCOLECTIVAS.ORG/

den Izaskun Chinchilla-k hasi zuen proiektua da, bere I.0 bertsioan eta Inteligencia Colectiva izenarekin. 2008an Bogota eta Medellin hirietan egindako tailerrekin hasi zen, Chinchillarekin batera lan egiten zuten Zoohauseko hainbat kide barne.

MD: Arkitekturan txertatua, potentzial handiko kontzeptua zela ikusi genuen. Zoohausetik proiektuarekin aurrera segitzea erabaki zen, Chinchillaren hobespenarekin baina haren parte-hartzerik gabe. Momentu horretatik aurrera, "2.0"-ri buruz ariko ginen hizketan, bi faseak modu argian nabarmentzeko. 2009. urtean izan zen hasierako fase hori, eta espainiar kulturaren internazionalizaziorako SIC diru-laguntza bat lortu genuen (AECID). Diru horrekin, Hego Amerikatik egin genuen bidaia bat, sortutako teoria praktikan jartzeko asmoz.

ER: 2009an proiektua lantzen hasi ginen, eta bilatutako "adimenak" bilduko zituen web bat sortu ere, Madrilgo Matadero eta Gijongo *Laboral Centro de Arte* zentroen laguntzak ere jaso genituen. Gaur eguneko ikuspegitik, oso diru gutxiko diru-laguntzak izan ziren, baina bultzada ederra eman ziguten, adore handia emanez.

Momentu horretan Hego-Amerikako "Tour Handia" burutu zenuten?


ER: Bai. Urte horretan oso lanpetuta ibili ginen, tourra egiteko kontaktu bila, herrialdeka banatuz, Hego Amerikako Espainako Kultur Zentro guztietara deitzen genuen bitartean. Azkenik, Kolonia, Peru, Txile eta Uruguain geldialdiak zituen bidaia antolatzea lortu genuen, Argentinari salto txiki bat emanez.

MD: Guztiok genuen Hego Amerika ezagun, eta proiektua azkar eraiki ahal izan genuen kontaktuei esker. Hamar lagun ginen, baina inork ez zuen bidaia osoa egin, diru gutxi baitzen, baina ilusio handiz jantziak geunden, eta bakoitzaren esfortzuak benetako parte-hartze proiektu bat osotzera lagundu ginduen. Benetako eskarmentu aberasgarria izan zen, benetako komunitateekin lana eginez eta lan-metodologiak ezarriz.

Zer du egiteko autoeraikuntzak europar gizartean?

MD: Autoeraikuntza-prozesuek industrializazioarekin batera galdutakoa berreskuratzeko eginkizuna dute, ñabardura nostalgikoari heldu gabe, baina bestelako balio batzuk berreskuratuz; erabiltzaileen hiria sortzen du autoeraikuntzak, norberak espazio publikoa, etxe propioa edo erabiliko diren materialak nolakoak izango diren aukeratuz. Erabiltzailearen beharren arabera, modu logikoan hartu behar dira erabakiak. Autoeraikuntza nortasun gabeko hiria egiteagatik galdutako balioak ikusgarri bilakatzea da.

ER: Bai, galera hori hiria azkarrago ekoizteagatik ere dator. European, argi dago, modu estandarizatu eta partzialki industrializatuaz eraikitzea da normalena. Horren kontrako zelanbaiteko joera bat badago ere, Hego Amerikako ikuspegitik oso urrun kokatzen da. Urruntasun hori hainbeste proiektu eta ekimenetan ikusi daiteke, hala nola Uruguain dauden elkar laguntzeko kooperatibetan. Bertan, urbanizazio ikusgarriak daude, pertsonen kooperatibek eraikita, non Gobernuak lur-sailaren jabea ematen duen



prezio murriztuan, etxea behar dutenek beren artean antolatu eta eraikuntza-lanak gauzaten dituztelarik. Hemen, autoeraikuntza gauza txikiagoetara mugatzen da, gauza teknologikoetara, nekazaritza-eremuetara.

MD: Arkitektoa diseinatzailatzat ez, baizik eta aholkularitzat duen autoeraikuntza korrante bat dago. Ezagutu ditugun talde interesgarri askok autoeraikuntza eskubidetzat hartzen dute, eta aukera hori bermatzea nahi dute.

ER: Hego Amerikan autoeraikuntza prekarietateari eta beharri oso lotuta dago: jendeak etxeak eraikitzen ditu, zeren eta, funtsean, hirietara heltzerakoan ez dute non bizi, ezta baliabide ekonomikorik ere: autoeraikuntza, hortaz, bizitokia lortzeko biderik merke eta eskuragarriena da. Europako testuingurua bestelakoa da.

Zerdu eraikuntzaren jarduera arautuak autoeraikuntza-prozesu hauetatik ikasteko?

ER: Ikerketarako esparru zabala dago... ez agian zabalagoa, baina bai bestelakoa, norberaren gaitasunetatik jaiotzen den testuinguru desberdin bat, bai ekonomikoak, bai fisikoak; autoeraikuntzan hainbat mugapen daude oztopo gisa uler daitezkeenak –adibidez garabirik ez duzunean, hots, baliabide materialak falta direnean–, baina bestelako ebazpenak sustatzen dituzte aldi berean. Eraikuntza estandarizatuak ere bere mugak ditu, araudia betetzea adibidez, hain zuzen ere autoeraikuntzan ez dagoen araudia.

Maé, autoeraikuntzak hiriei nortasuna ematen zuela aipatu duzu.

MD: Nortasun horren hiri-adibide ugari ikusi ditugu Hego Amerikako autoeraikuntza eta autoantolaketa, hau da, erabiltzaileen beharren arabera egiten diren hiriak. Hemen, nahiz eta balio ezberdinak sustatzen dituzten mugimenduak izan, auzo edo hiri bateko biztanleen interesak, eta ez norbanakoen interesak, sustatuko dituen mugimendu batetik oso urrun gaude oraindik. Era berean, Administrazioak hiri-politika zein eraikitakoaren inguruan biztanleriari erabaki-ahalmena ematetik ere oso urrun gaude.

ER: Materialak, haiek berrerabiltzeko teknikak... ikasgaien esparrua zabala da. Hirietako eraikuntza zaharrak ikusten dituzunean, erabilitako materiala gertukoa da, eta eguraldiari lotutakoa. Eraikuntza estandarizatuak merkatu-logika bat du, non auskalo nondik datozen materialak erabiltzailerak heltzen diren, eta, hortaz, materiala tokitik aldentzen da; gure ustez, tokiarekin harreman hori mantentzea interesgarria da.

Nolabait autoeraikuntzak ikuspegi oso idealizatuak duela iruditzen zait batzuetan; nonbait autoeraikuntza guztiz irekiko balitz, ez al genituzke uralitaz estalitako etxolak nonahi ikusiko?

ER: "Adimenak" bilatzen dituzunean, egungo eraikuntzan bilatzea da interesgarriena, eta ez tradizioan; hori da, hain zuzen ere, Hego Amerikan gertatzen dena, bertan dagoenarekin eraikitzen baitute, eta agian "dagoena" banbua eta "uralita" dira.

MD: Komunitate batekin lanean ari zarenean material tradizionalen aldeko borroka batean dihardugu etengabe, material industrializatuak albo batera uzteko. Borroka hori material tradizionalak modernoak ez direlako ustearen kontrakoa da. Uralita dute modernotzat, eta ez banbua, nahiz eta termikoki askoz hobeto funtzionatu.

Europar araudian zer edo zer aldatuko zenukete autoeraikuntza sustatzeko?

ER: Ez daukat araudiaren ezagupen handirik, baina orain dela pare bat urte burutu genuen "Agronautas" dokumentalean, adibidez, hainbat autoeraikitzailek autoeraikuntza-prozesu bat aurrera ateratzeko izaten zituzten oztopoak salatzen dituzte.

MD: Bioeraikuntzaren munduari begiratuz gero, non industriak estandarizatu ez dituen materialak erabiltzen diren, Espainiako estatuan bestelako tokietan ez bezala (adibidez Alemania), norberak frogatutako materialak eta teknikak erabiltzea zilegi da. Zentzu horretan, autoeraikuntza sustatzeko neurritzat jo daiteke.

Zer erlazio ikusten duzue tokiko arkitekturaren eta Adimen Kolektiboaren artean?

MD: Adimenen gauzarik interesgarrienak egileek berek egiten dituzten hibridazioak dira; oso teknika garaikideak antzinako teknikekin hibridatzen dituzte, nahiz eta, jakina, mundu globalizatutik datozen materialak erabili behar. Hibridazio hori modu argian ikusten da "adimen" horren sortzailearekin hitz egin eta gero, atzetik dagoen historia ulertzean. "Adimenak" tradizioetik eta historiatik datozen ezagutzak beste ezagutza arautuekin hibridatuz datoz, dauden baliabideak erabilia.

ER: Baliabideok toki jakin batean existitzen dira, nahiz eta batzuetan baliabide globalizatuak izan. Adimen kolektiboak tokiko arkitektura garaikideak dira, "tokiko" edo bernakuloak leku jakin bat nahi baitu aditzera eman. Arkitektura garaikide estandarizatuak baliabide asko ditu, globalak, baina DIY prozesuetan, autoeraikuntak tokiko baliabideekin egin behar du lan. Tokiarekin erlazio horrek ondorioak ditu: adibidez, Hego Amerikan autoeraikitzaileentzako txikizkako salmenta ugaria da. Burdindegia, han, zure etxea eraikitzeko beharrezkoak dituzun materialez hornitzeko biltegiak dira. Ordea, burdindegi horretan topatuko duzunaren arabera, edo tokiko baliabideen arabera –nola zabortegeak, berrerabilitako materialen dendak–, erabiltzaileak modu bateko edo besteko etxeak eraikiko ditu. "Tokikoa" gizabanakoari edo komunitateari zuzendutako behar oso konkretuei erantzutean datza, ad-hoc eta kostumizatutako ebazpena, toki jakin bateko baliabideak erabiliz.

MD: Bai, "bernakuloa" tokikoagatik, eta ez historikoagatik. Latinoamerikako hirietan geundela, hiri-hondakinen berrerabilpena sistemak bilatu genituen, gurpiletatik plastiko-zorroetara, edo eraikuntzako burdinetara.... Adibide hoiek europar hiriek begiratzen dituzten hiri-jasangarritasun adibideak dira.

((